## Hezkuntza Saila eta Eusko Jaurlaritzari urgentziaz exijitzen diogu: EAEko eskola guztietako ikasle zein langileen itzulera segurua, aurrez aurrekoa eta adostua bermatzeko neurriak eta irizpideak

### Maiatzean abian jarritako sindikatuon arteko elkarlanari jarraituz, aurrez aurreko itzulera segurua izan dadin mobilizazio dinamika bat hastera goaz

Eskoletara aurrez aurre itzultzeko Hezkuntza Sailaren kudeaketak onartezina eta arduragabea izaten jarraitzen du; aldebarreko erabakiz betea, negoziatu eta adostu gabekoa eta langile, ikasle zein familiengan etengabeko ziurgabetasun egoera sortzen ari dena.

Pasa den ikasturteko maiatzean Hezkuntza Sailak ikastetxeetara aurrez aurre itzultzeko asmoa aurkeztu zuenean, agerikoa zen une horretan ez zirela osasuna bermatuz eskoletara aurrez aurre itzultzeko baldintzak ematen. Hau horrela, hezkuntzan ordezkaritza daukagun sindikatu guztiok, eskoletara itzulera seguru eta adostu baten aldeko dinamika jarri genuen abian, eta dinamika horren baitan hainbat mobilizazioa, idatzi eta ekimen gauzatu genituen elkarlanean.

Besteak beste, Ekainean erregistratu genuen idatzi baten bidez, 2020/2021 ikasturtera begira, ondorengo oinarrizko aldarrikapen komunak betetzea exijitu genion Sailari:

- Eragileokin eta sindikatuokin negoziaturiko kurtso hasierarako plangintza eta irizpide orokorrak izan behar ditu EAEko Hezkuntza Sailak.
- Egon daitezkeen 3 eszenatoki ezberdinei egokituriko osasuna eta segurtasuna bermatzeko protokoloak langileon ordezkariokin negoziatu, adostu eta bete egin behar ditu (gaixotasuna kontrolatua, gaixotasunaren suspertzea zein itxialdi egoerara bueltatzea).
- Pandemiak sortu duen egoera berriari aurre egiteko beharko diren **baliabide, ratio jaitsiera eta langileen gehikuntza arautu behar ditu**, eta dagokion kasuan baliabide ekonomiko, pedagogiko, formatibo eta pertsonalez hornitu behar ditu ikastetxeak.

Ekimen, eskaera eta idatzi haiek ordea, ez zuten erantzunik izan, eta ikasturte berriaren atarian, Hezkuntza Sailak dinamika berberarekin jarraitzen du. Aurrez aurreko ikastetxerako bueltan segurtasun eta osasun neurriak zein beharrezko baliabideen gaia langileon ordezkari garen sindikatuokin partekatu ere egin gabe, hezkuntzako sare guztietarako irizpide komunik eta garbirik eman gabe zein osasuna bermatzeko neurri eta plangintzen ardura eta pisu guztia ikastetxe bakoitzaren bizkar utziz.

Horretaz gain, aurrez aurreko itzulera segurua bermatzearekin batera irizpide pedagogikoak erdigunean jarri behar dira urgentziaz, ikasleen irakaskuntza prozesua zein harremanak lehentasuna izanik. Horretarako, ezinbestekoa da langile kolektibo guztien ratioen jaitsiera integrala adostea langileak kontratatu eta plantillak indartzearekin batera. Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak hau egin ezean, hezkuntza guztirako mobilizazio dinamika bateratu bat adostera goaz.

Ziurgabetasun honekin bukatu eta Eusko Jaurlaritzak Hezkuntzan duen eskuduntza baliatuta, EAEko eskola guztietako ikasle zein langileen itzulera segurua, aurrez aurrekoa eta adostua bermatzeko neurri eta irizpide komunak jar itzazue behingoz!

Euskal Herrian 2020ko abuztuak 26an

ELA EUSKAL SINDIKATUA — LAB >irakaskuntza — CCOO irakaskuntza — UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi

## Exigimos urgentemente al Departamento de Educación y al Gobierno Vasco: medidas y criterios para garantizar el retorno seguro, presencial y consensuado del alumnado y personal de todas las escuelas de la CAV

### Dando continuidad a la unidad sindical puesta en marcha en mayo, vamos a iniciar una dinámica de movilización para que el retorno presencial sea seguro

La gestión que el Departamento de Educación está realizando para la vuelta a las clases de forma presencial sigue siendo inacceptable e irresponsable; llena de decisiones unilaterales, no negociadas ni consensuadas y que está generando una situación de incertidumbre permanente en trabajadores/as, alumnado y familias.

Cuando en mayo del pasado curso el Departamento de Educación presentó su intención de volver presencialmente a los centros escolares, era evidente que en ese momento no se daban las condiciones para volver a las clases de forma presencial garantizando la salud. Todos los sindicatos con representación en educación, pusimos entonces en marcha una dinámica a favor de un retorno seguro y consensuado a las escuelas, dentro de la cual llevamos a cabo diversas movilizaciones, escritos e iniciativas conjuntas.

Entre otras cosas, de cara al curso 2020/2021, exigimos al Departamento el cumplimiento de las siguientes reivindicaciones básicas comunes mediante un escrito que registramos en junio:

- El Departamento de Educación de la CAV debe disponer de una planificación y unos criterios generales para el inicio del curso negociado con los agentes y sindicatos.

- Debe negociar, acordar y cumplir con los representantes de los/as trabajadores/as los protocolos necesarios para garantizar la seguridad y la salud ante los 3 escenarios posibles (control de la enfermedad, reactivación de la enfermedad y vuelta a la situación de encierro).

- **Debe regular los recursos, la bajada de ratios y el incremento de personal necesarios** para hacer frente a la nueva situación creada por la pandemia, y dotar a los centros de recursos económicos, pedagógicos, formativos y personales en su caso.

Sin embargo, aquellas iniciativas, peticiones y escritos no tuvieron respuesta, y a las puertas del nuevo curso, el Departamento de Educación sigue con la misma dinámica. Sigue sin compartir siquiera con los sindicatos que representamos a las trabajadoras/es de la educación, ni las medidas de seguridad y salud a adoptar, ni los recursos necesarios para esa vuelta presencial segura, sin aportar criterios comunes y nítidos para todas las redes educativas y dejando sobre las espaldas de cada centro la responsabilidad y el peso de las medidas y los planes para garantizar la salud.

Además de garantizar un retorno presencial seguro deben ponerse en el centro de forma urgente criterios pedagógicos, priorizando tanto el proceso de enseñanza como las relaciones del alumnado. Para ello, es imprescindible acordar una bajada integral de las ratios de todos los colectivos de trabajadores/as junto con la contratación de personal y el refuerzo de plantillas. En caso de que el Gobierno Vasco y el Departamento de Educación no vayan en esa dirección, activaremos una dinámica conjunta de movilización para toda la educación.

Acaben ya con esta incertidumbre y respondiendo a la competencia que tiene el Gobierno Vasco en Educación, ¡pongan de una vez por todas medidas y criterios comunes para garantizar el retorno seguro, presencial y consensuado de alumnado y trabajadoras/es de todas las escuelas de la CAV!

Euskal Herria a 26 de agosto de 2020

ELA EUSKAL SINDIKATUA

LAB >irakaskuntza

CCOO irakaskuntza

UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi